

DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

## DEBAKO HONDARTZAREN (Santiago eta Lapari) ERABILERA-ERREGIMENA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

### 1. Artikulua.- Xedea.

DEBAko udalerriak hondartza bat du, baina itsasgoran Aitzandi muturrak bitan banatuta geratzen denez, Santiago izeneko hondartza nagusi eta herritarragoa topatuko dugu mendebaldean eta Lapari izenekoa ekialdean.


- a) Hondartza hau Gipuzkoako kostaldearen mendebaldean kokatua dago, udalerrriaren izen bera duen ibaiaren bokalean.
- b) Itsasgoran 350 metroko luzera du, eta itsasbeheran, Laparirekin bat eginda, 765 metroko luzera, eta hala, guztira, 80.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera hartzen du.
- c) Urre koloreko hondar fina du, Atlantikoaren eraginpean aurkitzen da eta, horretxegatik, forma aldatzen du eta indar eta intentsitate desberdineko korrante/zurrunbiloak sortu ohi dira.
- d) Horrenbestez, olatu handi samarrak dituen hondartza bat da, itsasoari irekia dago, eta ezin hobea da kirol-jarduerak egiteko, hala nola surfa, piraguismoa edo windsurfa.
- e) Instalazio eroso eta osatuak ditugu bertan, eta horien barruan, beste zerbitzu batzuen artean, dutxak, aldagelak, arropa-zaindegiak, komun publikoak, eguzki-oihalak eta taberna-kafetegia ditugu.
- f) Azpimarratu beharra dago **Deba-Zumaia Itsasertza** izeneko Biotopo Babestuaren barruan aurkitzen dela, ISO 14001 ingurumenaren kudeaketarako ziurtagiria duela eta Euskal Kostaldeko Geoparkearen zati dela.

Aipatutako xehetasun horiengatik, eta hondartza hau urtean zehar era askotako jarduerak egiteko erabiltzen dela kontuan izanik, ordenantza hau prestatu da, herritarrek urte-sasoaren edo denboraldiaren arabera dituzten premiei modu egoki batean erantzun ahal izateko.

### 2. Artikulua.- Alderdi orokorrak.

Abiapuntutzat hartuz itsaso nahiz lehorreko eremua Debako udalerrriaren parte dela, guztiz ezinbestekotzat jotzen da hondartzako erabiltzaileek gutxieneko jokabide-arau batzuk errespetatzea, bainularien, kirolarien eta, oro har, herritar guztien onerako izango baita.

Horregatik, udal ordenantza honen xedea da hondartzaren erabilera-erregimena arautuko duen araudi bat ezartzea. Hori dela eta, hondartzako erabiltzaileek, baita beste entitate



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

batzuek ere, une oro errespetatu beharko dituzte Ordenantza honetan esandakoak, baita Udalak, denon mesederako, aurrerantzean ematen dituen xedapen guztiak ere: gizakion bizitzak salbatzarekin eta segurtasunarekin loturikoak, aldi baterako instalazioekin loturikoak, eta zerbitzu desberdinen emakida eta baimenei eragiten dieten beste arau berezi batzuekin loturikoak.

Halaber, erabiltzaileek errespetatu egin beharko dute legedi desberdinek ezarritako erregimena: uztailaren 28ko Kostaldee buruzko 22/1988 Legea, Itsasbazterren babes eta erabilera jasangarriari buruzko maiatzaren 29ko 2/2013 Legea –Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzekoa–, eta urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretu bidez onetsitako horren Araudia, baita horien garapen-arauak ere, ordenantza hau baino hierarkia-maila handiagokoak izateagatik.

### **3. Artikulua.- Antolamendua, Zaintza eta Osasun Arreta.**


Zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuak udako denboraldian eskainiko dira urtero, eta oro har, ekainaren 15etik irailaren 15era doazen egun guztiak sartuko dira horren barruan. Aurrekoa hala izanik ere, Udalak erabakiko du, egoki irizten badio, zein izango diren udako denboraldi bakoitzeko data ofizialak. Kasu honetan, bainu-denboraldiaren hasiera eta amaiera egoki denean iragarriko da.

1. DEBAko hondartzako zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuek, halaber, egoki denean iragarriko den ordutegi jakin bat beteko dute.
2. Ordutegi horretatik kanpo, bainu bat hartu nahi duten pertsonak beren erantzukizunpean egingo dute guztiz.
3. Hondartzeko zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuei dagokie, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari ere, Udalarik jakinaraztea edo adieraztea zein diren itsasoaren egoera edo uraren osasun-baldintzak, lehenaren kasuan ezarritako jarraibideen arabera eta, bigarrenarenean, dagokion legeriak ezarritakoarekin bat etorritik, egokia den ala ez bainua hartzea eta, halaber, bainu-hartzaileak gehienez ere noraino sar daitezkeen itsasoan.
4. Udalak, jakinarazitako informazioa balioetsi ondoren, hondartzak eta bainurako eremuak irekita mantenduko ditu edo itxi egingo ditu, egoki irizten badio.

### **4. Artikulua.- Bainua.**

Hondartzako zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuek, itsasoaren egoeraren arabera eta uraren kalitatearen arabera bainua hartzea egokia den ala ez adieraztearren, bandera hauek jarriko dituzte:

1. Itsasoaren egoeraren arabera, jarriko diren banderak kolore eta esanahi hauek izango dituzte:
  - Bandera gorria: debekatua dago bainua hartzea.



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

- Bandera horia: bainua kontuz hartu behar da.
- Bandera berdea: libre da bainua hartzea.
- Bandera gorri/urdina: surfean, bodyboardean eta piraguismoan aritzeko erreserbatutako eremua.
- Marmoken bandera: marmokak daudela adierazten du

Itsasoaren egoeraren arabera, bandera orokor bat jarriko da, gorria, horia edo berdea. Bandera horrekin batera bandera gorri/urdirak ere jarriko dira, kirol-eremua mugatzeko. Bandera gorria dagoenean, bi bandera horien artean bereziki zainduko den bainu-eremu jakin bat mugatu ahal izango da.

2. Uraren kalitatearen arabera, kartel edo piktograma batzuk jarriko dira ondorengo azalpenak emateko:

- Bainua - «Librea».
- Bainua - «Kontuz».
- Bainua - «Desegokia».

Bainu-hartzaileek une oro errespetatu beharko dituzte aurreko adierazpen horiek, baita zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuek segurtasunez eman ditzaketen orientabide guztiak ere, eta era berean, egun dauden xedapen guztiak edo erakunde eskudunek aurrerantzean eman ditzaketenak.

## **5. Artikulua.- Kirolak.**

### **ARAU OROKORRA.**

Hondartzan kirol jakin batzuk egin ahal izango dira, baldin eta egindako jarduera horrek ez badie pertsoneri arriskurik edo eragozpenik sorrarazten eta ez badute bainurako mugatutako eremuetara sartzea oztopatzen eta, betiere, libre dagoen eremuak horretarako aukera ematen badu.

Ez da baimenduko horretan aritzeko sokak, ainguratzeak edo beste edozein eratako amarradurak eskatzen dituen kirolak, ezta trakzio mekanikoa edo animalia bidezkoa behar duenik ere, eta ezta ere, jaurtiketa-jarduerarik (barra, xabalina eta abar).


Udalak beretzat gordetzen du hondartzako jarduerak antolatzeko xedez eremu batzuk mugatzeko eskubidea.

### **HONDAR GAINEKO KIROLAK**

#### *Udako denboraldian:*

Itsasbeheran, hondartzak irekita dauden bitartean, eta zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuak aktibo daudela, kirol-jarduera batzuk egin ahal izango dira hondartzan.

Itsasgoran, aldiz, kirol-jolas batzuk (futbola, voleya, pala eta abar) horretarako mugatutako eremuetan bakarrik egin ahal izango dira.



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

Zaintza eta osasun-arretarako zerbitzuak amaitu ondoren, arau orokorra aplikatuko da.

*Urtearen gainerakoan:*

Arau orokorra aplikatuko da.

### URETAKO KIROLAK

*Udako denboraldian:*

Surfa, bodyboarda eta piraguismoa bandera gorri-urdinez mugatutako eremuetan bakarrik egin ahal izango dira.

Egunero, udako denboraldian, zaintza eta sorospenerako zerbitzuek mugatu egingo dute ur-kirolak egiteko eremua.

Debako hondartzak dituen ezaugarri fisikoak direla eta, eta egun eguzkitsu jakin batzuetan etor daitekeen jendetzagatik, dagokion udal baimenaren jabe diren surf-, bodyboard- edo piraguismo-eskoletako erabiltzaileentzat gehieneko okupazio-kupo bat finkatuko da.

Muga hori indarrik gabe gera daiteke egun euritsu edo lainotuetan, jendearen etorria esperotakoa baino txikiagoa denean.

Muga horrek ez die eragingo surfean, bodyboardean edo beste kirol-jarduera batzuetan nor bere kasa aritzen direnei.

Itsasoan trakzio mekanikoa edo eolikoa erabiliz praktikatzen diren jarduerak, hala nola itsasontziak beren bertsio desberdinetan (motoak, eskia, belaontziak, arraun-ontziak, kirol-nabigazioa eta aisialdikoa, eta abar) marea-lerrotik 200 metrotara bakarrik egin ahal izango dira.

*Urtearen gainerakoan:*

Prebentzio eta segurtasunerako beharrezko neurriak hartzen badira, hondartzaren luze-zabal osoan motorrik gabeko uretako kirol-jarduerak egin ahal izango dira, baina betiere beste jarduera batzuei eragozpenik sortu gabe.

### AIRE, LUR ETA ITSASOKO KIROLAK.


*Udako denboraldian:*

Haizeak eraman edo bultzatu ahal izateko sokak, ainguratzeak edo amarradurak behar dituzten kirolak eta jarduerak, hala nola parapentea, paraxuta, kometak eta abar, ezingo dira egin.

Berariaz debekatuta dago motordun parapenteekin hegan egitea.

*Urtearen gainerakoan:*

Debekatua dago motordun parapenteekin hegan egitea.



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

## **Debako hondartzan uretako kirol-jarduerak egiteko araudia SURF ESKOLAK**

Azken hamarraldi honetan gero eta jende gehiago aritzen da surfean, batez ere udako denboraldian. Hori dela eta, kirol-modalitate hau aukera ekonomiko nahiz turistikoa bilakatu da, eta horretxegatik, DEBAko hondartzan sektore hori arautzeko premia ikusi dugu.

Jarduera hori arautzeari begira, eta surfa balioetsi eta, horrekin batera, gure hondartza erabiltzen duten pertsonen eragozpenik ez sortzearen, ondorengo alderdiak hartu dira kontuan:

**a.-** Itsasoa denon ondarea da.

**b.-** Debako hondartzak 765 metroko luzera du itsasbeheran, eta 365 metro ingurukoa itsasgoran.

**c.-** Debako hondartzan surf-ikastaroak eskaini ahal izatea eskatzen ari diren eskolak eta profesionalak, aurrerantzean enpresak, gero eta gehiago dira. Surf-eskolek udalerraren garapen ekonomikorako eremu estrategiko bat sortu dute, eta araudi honen bitartez, aukeraberdintasuna eta udal mailan izango duen eragin positiboa bermatu nahi dugu.

**d.-** Uda partean Debako hondartzara etortzen diren bainularien eta ur-kirolen zaleen kopuruak handiak dira.

**e.-** Zaintza eta sorospenerako zerbitzuaren ardura da surferako eremuak balizen bidez mugatzea. Balizak kokatzea itsasoaren egoeraren mende eta bertara etorritako erabiltzaile kopuruaren mende dago; hori dela eta, zaintza eta sorospenerako zerbitzuak tokiz aldatu ahal izango dituzte, egoki dela ikusten badute. Une oro errespetatu egin beharko dira bai balizak eta bai sorosleek ematen dituzten azalpenak ere.

**f.-** Hondartzako erabiltzaileen eta bertako zerbitzu guztien segurtasuna bermatu behar da.

**g.-** Horretarako prestatutako eremuaren gehieneko okupazio-muga bat ezarri behar da, eta erabiltzaileek nahiz ikasleek bete egin beharko dute.


### **Baimenak erdiestea:**

Debako Udalak, interesatuek aurrez hala eskatuz gero, Debako hondartzan surf-ikastaroak eskaini ahal izateko baimenak banatuko ditu, gehienez ere 24 hilabeteko iraupenarekin.

Debako Udalaren helburua herriko hondartzetan esperientzia eta jardunbide egokia duten surf eskolei jarraipena ematea da. Dagoeneko baimena duten eskolek ordenantzan jasotzen diren baldintzak bete beharko dituzte jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

Udalak, plazaren bat libre baldin badago, urtero urtarrilean dagokion baimena erdietsi ahal izateko deialdi bat argitaratuko du.

Besterik adierazi ezean, Debako hondartzan udako denboraldian beren zerbitzuak eskaini nahi dituzten eskolek eskabide bat aurkeztu beharko dute urtarrilean, eskatutako gainerako agiriekin



## DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

batera, eta horretarako epea hilaren 31n amaituko da, edo urtarrilaren barruan hurbilen dagoen lanegunean.

Uda partean jende-eman handia izaten denez, eta Debako hondartza eremu mugatua denez, Debako Udalak surf-ikastaroak emateko gehienez ere 2 baimen onartuko ditu urte osorako.

Eskabideen kopurua 2 baino handiagoa baldin bada, baimenak baremazio bidez esleituko dira, alegia, eskatutako betebeharrak betetzen dituzten eskabide guztien artetik puntuaziorik handiena erdiesten duten bi eskolak hautatuko ditu.

DEBAko Udaleko herritarren arretarako bulegoetan aurkeztu beharko da eskabidea.

Euskadiko Kostako Demarkazioak Udalaren bitartez ikastaroak eskaintzeko baimena onartu eta dagokion ordainketa egingo du.

Aurkezteko epea amaitu ondoren, eskabide guztiak berrikusi egingo dira, eskatutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko. Horiek egiaztatu ondoren, 2 eskabide baino gehiago baldin badaude, UDAL ORGANOK ESKUDUNAK dagokion baremazioa egiteari ekingo dio. Puntuaziorik handiena lortzen duten lehenengo bi eskolek edo eskabideek erdietsiko dute horretan aritzeko baimena.

Udalak, 3 hilabeteko gehieneko epe baten barruan eskabide guztiei erantzungo die.

Baimen horiek bi urteko iraupena izango dute gehienez ere, baimenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta ez da luzatzeko aukerarik izango. Bi urtez behin, berriro eskabidea aurkeztu beharko da eskatutako gainerako agiriekin batera, eta hala egokituz gero, baimen berri bat emango da.

Emandako baimen hori ongi ikusteko toki batean jarri beharko da establezimenduan, horrelakorik baldin badago.


Interesatuta dauden surf-eskolek, dagokion baimena erdietsi ondoren, indarrean dauden ondorengo araudiak bete beharko dituzte:

- Datuak babesteko legea
  - Laneko prebentzioari eta segurtasunari buruzko legea.
  - Generoaren Legea.
- Monitoreek aurrekaririk ez dutela dioen aitortzea (adingabeekin loturik).

### Dagokion baimena erdiesteko bete beharreko gutxieneko betebeharrak:

a- **Erantzukizun Zibileko Asegurua**, 300.000 €koa, ikasleei edota hirugarrenengoiegi egiten zaizkien kalteak estaliko dituen, zerbitzua burutzeko beharrezkoak diren lanen ondorioz eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematera behartuta egongo baitira, eta, horrez gain, poliza ordaindu izanaren egiaztatzea.

b- **EJZren 934 epigrafean alta eman izana** (Establezimendu iraunkor batetik kanpoko irakaskuntza).



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

c- Euskadin ondasunak merkaturatzen dituzten edo zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek (saltokiak, tabernak eta jatetxeak, banku-entitateak, aseguru-konpainiak, gremioak...), baita zerbitzuak etxez etxe eskaintzen dituztenak ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen esku nahitaez eduki behar dituzten **erreklamazio-orriak** eduki beharko dituzte.

d- **Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin ordainketak egunean dituela** dioen egiaztageria.

f.- **Ustiapen-memoria bat**, ondorengo betebeharrei buruzko informazioa eta horiek bete izana zehaztasun osoz nahitaez jasoko duena:

- **Antolamendua eta lana. Monitorean arteko koordinazioa eta/edo kopurua. Titulazioak eta euskararen ezagutza.**

Monitoreek I. mailako surf-entrenatzailearen titulu homologatua eduki beharko dute.

Behin-behinekoz, aipatutako titulu horren jabe diren monitorean eskasiaz jakitun garenez, eskatutako titulua ez duten monitorea onartuko dira, baina horrelakoetan, surf-monitore gisa gutxienez bi urteko esperientzia eduki dezatela eskatuko da. Kasu horietan, eskola bakoitzak bere organigramaren barruan I. mailako surf-entrenatzailearen titulu homologatua duen monitoreren bat eduki beharko du.

Behin-behinekoz, baremazioari begira, eskola bakoitzak dauzkan titulazio homologatuak balioetsiko dira.

Monitorean teknika eta kirol arloko tituluek, edo agintaritza eskudun batek horiei buruz egindako ziurtagiriek ikusgai egon beharko dute eskolaren egoitzan, horrelakorik baldin badute.

Eskolak aukera eman beharko du ikastaroetan parte hartzen duten pertsonak Euskadiko Autonomia Erkidegoan ditugun bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jaso ditzaten ikastaro horiek. Horretarako, langileetako batek bederen egiaztatu egin beharko du baduela Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailako konpetentzia duen euskara maila, eta gainerako langileek B2 maila ahozkoan.

Halaber, baimena eman ondoren, zerbitzu hori eskainiko duten pertsona gehiago kontratatzen badira, horiek ere beharrezkoa den hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko dute.


Errotuluak, ohartarazpenak, seinaleak eta izaera orokorreko gainerako jakinarazpenak piktograma bat dutela egingo dira, eta horiekin batera, euskaraz idatzitako azalpen-mezu bat joango da.

Piktograma bat dutela egitea ezinezko gertatuz gero, euskara hutsean egingo dira, baldin eta mezu ezagunak eta erraz ulertzeko modukoak badira.

Aurreko bi kasu horiek ezinezkoak badira, bi hizkuntzetan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, bai ordenari dagokionez eta bai tamainari dagokionez ere (lehenik euskaraz eta letra handiagoan).

Eskolak eta administrazioak, beren arteko ahozko nahiz idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, ahal den neurrian.

Erabiltzaileei eskaini beharreko arreta, berez, administrazioari eskatzen zaizkion antzeko hizkuntza-baldintzetan eskainiko da. Arreta, hasieran bederen, euskaraz eskainiko da.



## DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

Halaber, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, ohartarazpenak, ordutegiak, fakturak, ...), euskarari lehentasuna emanez. Herritarrak, edozein unetan, hizkuntza hautatzeko eskubideaz baliatu ahal izango dira.


Surf-eskolak bermatu egin beharko du, zerbitzua eskaintzen duenean, euskaraz erabiltzen diren testuak egokiak eta zuzenak direla.

- Surf-eskolak eskaintzeko aurreikusten diren egunak eta ordutegiak jasotzen dituen **egutegia**.
- **Eskolaren identifikazioa:** Kirol-jarduerak egiten diren bitartean, eskolako erabiltzaileek, bai ikasleek eta bai monitoreek ere, behar bezala identifikatuta egon beharko dute argi ikusten diren ezaugarri eta bereizgarrien bitartez, eta horrez gain, monitoreen eta ikasleen ekipamenduak desberdinak izan beharko dute, talde bakoitzeko arduradunak eta taldeko kideak nor diren erraz bereizi ahal izateko. Bereizgarri horiek soinean eramango dituzten likrak izango dira eta baimen-eskabideekin batera aurkeztu beharko dira, ekipamendu bereizgarriaren argazki, marrazki eta deskribapenen bidez egiaztatuz.
- **Tokiko iraunkortasuna:** Debako hondartzak ISO 14001 kudeaketaren ingurumen-zurtagiria du 2003. urteaz geroztik. Ziurtagiri horrek tokiko ingurumena eta iraunkortasuna hobetzearen alde lan egingo duela adierazten du. Debako hondartzan dagokion baimena erdietsi nahi duten surf-eskolek oholetan aplikatzen dituzten parafinak eta gainerako ukenduak ekologikoak izango dira beti, eta horrelakoak erabiltzen dituztela egiaztatu beharko dute.

Ondorengo puntuak betetzea aukerakoa izango da, eta ordenantza honetan ezarritakoak baino eskabide-kopuru handiagoa baldin badago bakarrik puntuatuko dute.

- Eskola horrek berak Debako hondartzaren eremuan egingo dituen **beste jarduera batzuen** azalpena.  
Surfa edo bodyboarda ez den eta Debako hondartzaren eremuan burutuko duen bestelako jarduera bakoitzari 5 puntuko balioespena emango zaio.
- **Esperientzia:** hondartzetan surf, bodyboard eta piraguismo ikastaroak ematen eskolak duen esperientzia egiaztatuko da. Enpresa-ziurtagiriaren eta exekuzio egokiaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.  
Hondartzan surf, bodyboard edo piraguismoko klaseak ematen aritu den denboraldi bakoitzeko 5 puntu emango zaizkio eskola bakoitzari.
- **Hobekuntza-proposamenak:** surf-eskolari balio handiagoa emango dioen guztiak sartuko dira. Izaera desberdinetakoak izan daitezke: kudeaketa-sistemen ezarpena, ingurumenaren alde egiten dituzten jarduerak, udalerriko edo eskualdeko politika turistikoarekin zerikusia dutenak...  
Tokiko iraunkortasuna hobetzeko xedea duten hobekuntza guztiei 5 puntu emango zaizkie, alegia, hondartzaren eta bere inguruaren onura ekonomikoa, soziala eta ingurumen arlokoa bilatzen duten hobekuntza guztiei.
- **Eskola bakoitzeko surf-monitore tituludunen kopurua:** Behin-behinekoz, 20 puntu emango zaizkie monitore guztiak eskatutako tituluaren jabe dituzten eskabideei, 10 puntu emango zaizkie eskatutako gutxienekoaz gain titulurako ikasten ari den monitoreren bat dutenei, eta 0 puntu gutxienekoa bakarrik betetzen dutenei.





DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

- **Euskararen ezagutza duten monitoreen kopurua:** 20 puntu emango zaizkie monitore guztiak C1 tituluaren edo titulu baliokidearen jabe dituzten eskabideei.
- **Beste hizkuntza batzuen ezagutza:** 15 puntu emango zaizkie eskolako monitoreek dituzten atzerriko hizkuntzen (ingeleza, frantsesa) C1 mailako tituluei, 10 puntu B2 mailakoei, eta 5 puntu B1 mailakoei.

Bainu garaian eta hondartzako ordutegian (11:00etatik 19:00etara ekainean eta irailean, eta 10:30etik 20:00etara uztailean eta abuztuan) segurtasuna bermatzearen, horretarako mugatutako eremuan egon daitezkeen surf-ikasleen gehieneko kopurua 60 izango da, eta beraz, eskola bakoitza gehienez ere 30 pertsonarekin joan daiteke, monitoreak ere barruan direla.

Udalak ahalmena edukiko du kopuru-muga hori aldatzeko, baimena duten eskolei aurrez ohartarazita, gerta litezkeen arrazoi desberdinengatik, hala nola etorritako jendetza eta/edo segurtasuna.

## 6. Artikulua.- Eguzki-oihalak.

Santiago hondartzan barrena kokatuko dira, estetika eta neurri jakin batzuekin, eta guztira ez dira 250 unitate baino gehiago izango. Kokatzen diren elementuen kopurua aldaezina izango da denboraldi osoan zehar.

Hain zuzen ere, hondartzaren egitura dela eta, eguzki-oihalak ezingo dira itsasgoraren lerrotik 6 metro baino tarte txikiago batera jarri, eta hondartzaren erdian kokatzen den zaintza-dorretxoaren atzealdetik 8 metro baino tarte txikiagora ere ez.


Alde horretatik, urtero eta denboraldi bakoitzari ekin aurretik, Udalak zaintza-dorretxo horren kokapena erabakiko du, eta hori egin ondoren, eguzki-oihalak non kokatuko diren erabakiko du.

Zaintza-dorretxoaren atzealdean eta hondartzako sarbideen aurrealdean bidea libre utzi beharko da.

Eguzki-oihalak multzoka kokatuko dira Santiago hondartzan barrena, itsasertzarekiko paralelo doazen ilaratan. Bi ilara paralelo horien arteko distantziak aukera eman behar du garbiketa-makina igarotzeko.

Behin-behinekoz, lehen lerroko eguzki-oihalen kopurua gutxitzera joko da, horiek atzealdeko ilaratan kokatzen joateko.

Nolanahi ere, Udalak beretzat gordeko du hondartzako denboraldi bakoitzean kopuru hori eta horien antolamendua aldatu ahal izateko eskubidea, indarrean dagoen kosta-legea bete ahal izateko.



**DEBAko UDALA**

EXP 2018SCCO0002

Egunero, jardunaldiaren hasieran zabaldu egin beharko dira, eta jardunaldiaren amaieran itxi edo bildu. Larrialdi batean, edo ezohiko beste gertaera baten aurrean, Udalak, eta kasuaren arabera, sorospen-zerbitzuarekin koordinatuta, eguzki-oihalak ez irekitzea edo ixtea erabaki ahal izango du, baita ezarritako ordutegiak aldatu daitezela ere.

Erabilera-baldintzarik eta kontserbazio-egoerarik onenetan egon beharko dute beti. Horien estetikari dagokionez, beren ingurunearekin, ohiturarekin eta beren helburu turistikoarekin bat etorriko dira. Denek ezaugarri berdinak edukiko dituzte, eta kolorea bakarrik alda daiteke.

Eguzki-oihal bakoitzaren azalera gehienez ere 3,10 m<sup>2</sup> izango da.

Zerbitzu honen osagarri gisa, eguzki-oihalaren alokairuaren barruan aulkien erabilera ere sartuko da. Aulki horiek eguzki-oihalaren material eta ezaugarri berdinekin eginak egongo dira. Eguzki-oihal bakoitzari gehienez ere 4 aulki lotzea baimenduko da, eta horietatik bi, gutxienez, eguzki-oihal bakoitzak izango dituen aulki osagarriak izango dira.

Ez da baimenduko partikularrek eguzki-oihalak jartzea; dagokion emakida eta udal baimena dutenak bakarrik jarri ahal izango dira.

Itzalkinak gainerako erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko baldintzetan jartzea baimenduko da, baina betiere behar hainbateko segurtasunez hondarretan sartuak egongo dira, bereziki brisara dagoen egunetan. Haize handia egiten duenean, kendu egin beharko dira. Eguzki-oihalaren ilaratik 10 metrora jarri beharko dira.


Debekatuta dago kanpin-dendak edo antzekoak jartzea hondartzaren luze-zabal osoan, baita kanpamentu edo kanpalekuak ere.

## **7. Artikulua.- Biodibertsitatea eta ingurumena**

2002an hondartza handitu zenez geroztik, etengabekoak izan dira hondarraren galerak, eta hala, batzuetan haizeagatik eta besteetan itsasoagatik, hondar-multzo handiak desagertu dira. Arazo hori konpondu nahian, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kosta Zerbitzuak 2013. urtean, Debako Udalaren onespenerarekin, duna-sistema bat sortu zuten hondartzaren atzealdean eta mendebaldean, hondar-galera handienak gertatzen ziren tokian. Duna-sistema horren barruan landare-espezie desberdinak ditugu, hala nola, *Ammophila arenaria*, *Elymus farctus*, ... Horren eraginkortasuna frogatua dagoenez gero, duna-sistema hori babestea komeni dela uste dugu.

Debako hondartzaren barruan, gaur egun, 850 m<sup>2</sup> inguru hartzen ditu duna-sistema horrek, eta azalera hori ongi mugatua dago.

Santiago eta Lapari hondartzak, hain zuzen ere, otsailaren 10eko 34/2009 DEKRETUAK Biotopo Babestu izendatutako Deba eta Zumaia arteko itsasertzaren mugen barruan aurkitzen dira, eta halaber, Baliabide Naturalen Antolamendurako Plan bat ere badute, otsailaren 10eko 33/2009 DEKRETUAK onetsia. Hondartza horretan, baliabide natural bat denez gero, animalia- eta landare-espezie desberdinak topatzen ditugu. Itsasaldien arteko eremu harritsueta aurkitzen dira



**DEBAko UDALA**

EXP 2018SCCO0002

batez ere, eta horrelako tokietan maiz topatzen ditugu: karrakelak, karramarroak, olagarroak, muxarrak, anemonak, izkirak, ....

Aipatutako BNAP horren helburu berezietako bat, hain zuzen ere, bertako habitatak, loreak eta animaliak babestea da, eta babes hori gauzatu ahal izateko, eta tokian tokiko biodibertsitateari bere balioa emateko, izaera orokorrean bete beharreko ondorengo arau hauek xedatu dira:

- a) Ingurune Naturala kontserbatzeak eta tokian tokiko garapenak berekin dituzten premietara egokitu behar da aisialdi-erabilera.
- b) Debekatuta dago hondar-pilaketak errazten dituzten landareak erauztea edo hondatzea, kosta-zerbitzuak eta Foru Aldundiko dagokion departamentuak justifikatutako eta onetsitako arrazoiren bat egon ezean.
- c) Itsaski-bilketari dagokionez, III. Eranskinean jasotako arau bereziak arautuko du hori: Antolamendu-eremuaren barruan (BNAP) eragin berezia duten araudiak
- d) Udalak ingurumenaren inguruko heziketa eta kontzientzia sustatzearen alde lan egingo du, ornodun eta ornogabe txikien harrapaketak urriagoak izan daitezen.

## **8. Artikulua.- Arrantza.**

Udako denboraldian, lehorretik egiten den ur gaineko kirol-arrantza 21:00etatik hurrengo eguneko 8:00etara egin ahal izango da hondartza-eremuan.

Administrazioak baimentzen ez dituen arrantza-tresnak edo aparailuak ezingo dira erabili, eta debekatuta egongo da hondartzan zenbait arrantza-aparailu jartzea, hala nola tresak, pantxerak, amuak eta abar.

Debekatuta dago urpeko arrantza egitea marea-lerrotik 250 metrora baino gutxiagora, hondartza osoan.

## **9. Artikulua.- Animaliak.**


Debekatuta dago hondartzan etxe-aberirik, abere etxekoturik edota basa-abere gatiburik edukitzea eta solte uztea (edozein animalia solte uztea).

Salbuespen gisa, urriaren 1etik maiatzaren 30era animaliak sartzea eta bertan edukitzea baimenduko da.

Nolanahi ere, GAOean 2015eko ekinaren 30ean argitaratutako Animaliak Eduki eta Babesteko Ordenantzan xedatutakoa beteko da, eta bertan jasotzen da, halaber, Ordenantzaren Aldaketa, 2015eko apirilaren 9eko udal batzarrak onetsia.

## **10. Artikulua.- Garbiketa.**

Hondartza garbitasun-, higiene- eta osasungarritasun-baldintza egokietan egon dadila zainduko da.



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

Garbiketa-lanetarako, gaikako bilketa egiteko eta bertatik hondar gehiegi ez eramateko egokiak diren makinak eta erremintak erabiliko dira.

Udako denboraldian garbiketa-lanak egiteko ordutegiak bere garaian ezarriko dira, baina dena den, lan horiek 10:30etarako amaitzen ahaleginduko dira.

Debekatuta dago hondakin solidorik, obra-hondakinik, araztu gabeko hondakin-urik edota ontzirik, zaborrik eta zakarrik horretarako xedatutako ontzietatik kanpora botatzea edo uztea.

Oro har, garbitasuna, txukuntasuna eta Ingurumenarekiko errespetua bermatuko duten baldintza egoki batzuk edukitzeko eta hondartzan sortzen diren hondakinak egoki berreskuratzeke, ondorengo arau hauek ezarri dira:

Hondakinak non utzi:

- a) Hondakin organikoak hondarretan instalatuta egongo diren edukiontzi marroien barruan utziko dira.
- b) Ontziak (jogurtak, tetrabrikak, latak eta plastikozko poltsak eta abar) hondarretan instalatuta egongo diren edukiontzi horietan utzi beharko dira.
- c) Paperezko eta kartoizko hondakinak edukiontzi urdinen barruan utzi beharko dira, horrelakorik baldin badago.
- d) Beirazko hondakin guztiak edukiontzi berdeen barruan utzi beharko dira, horrelakorik baldin badago.
- e) Birziklagarriak ez diren hondakin guztiak (pixoihalak,....) edukiontzi grisen barruan utzi beharko dira.
- f) Debekatuta dago zigarro-zuztarrak edo beste edozein eratako hondakinak hondarretara botatzea.
- g) Gaikako edukiontzi eta paperontzien barruan ez da sartuko horietan propio sartu beharrekoa ez den inolako hondakinik.


Debekatuta dago:

- a) Duxa publikoetan xaboiak eta bainurako gelak erabiltzea.
- b) Hondartzako eta Itsas Pasealekuko eremu publikoetan txiza edo kaka egitea.
- c) Mahaitxoan garbiketa-lanetan sortutako hondakinak hondarretara botatzea.

## **11.Artikulua.- Ezohiko aldi baterako jarduerak.**

Hondartzan ezohiko aldi baterako jardueratzat edo instalaziotzat hartuko dira jardueraren izaera kontuan izanik noizbehinkako maiztasunez data eta leku jakin batean egiten direnak.

Hondartzan kultura, kirol edo aisialdi arloko ekitaldiak antolatu nahi dituzten erakunde guztiek aldeztu behar dutelako udalaren administrazio-baimen egokia erdietsi beharko dute, nahiz eta Kostako Probintzia Zerbitzuaren edo gai horretan eskumena duen beste edozein Administrazioen baimena ere behar izan dezaket.



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

Ezohikotzat jotzen den edozein jarduera egin nahi duen pertsonak edo erakundeak eskaera idatzi bat aurkeztu beharko du Udal Erregistroan, ekitaldi hori antolatu baino denbora nahikoa lehenagotik.

## **12. Artikulua.- Beste xedapen batzuk.**


Hondartzan debekatuta dago, halaber:

- a) Hondartzako pasabideetan eta sarbideetan jendearen joan-etorriak zailtzen dituzten aulkiak, eserlekuak edo bestelako objektuak jartzea, eta halaber, igarotzeko leku horien barruan etzatea edo geldirik geratzea.
- b) Hondartzan janaria prestatzea, baldin eta horiek prestatzeko sua erabili behar bada, horretarako dauden su mota desberdinetan (su txikiak, kanpin-gasak, eta abar).
- c) Hondartzan otordua egiteko mahaiak edo horien ordezeko tramankuluak muntatzea.
- d) Sua egitea eta parrilak, barbakoak edo antzekoak erabiltzea.
- e) Hondartza gaua igarotzeko erabiltzea, edota bilerak, festak edo ordena nahasi dezakeen edozein ekintza antolatzea.
- f) Edozein eratako ibilgailu hondartzara jaistea, bertatik ibiltzea edo bertan aparkatuta uztea, baimendutako zerbitzuak, salbamendukoak, sorosletakoak, garbiketakoak eta abar izan ezik.
- g) Megafonoak, transistoreak, disko-jogailuak edo antzekoak edo beste soinu-igorgailu batzuk erabiltzea, hondartzako zerbitzuek erabiltzen dituztenak izan ezik, baldin eta horien entzumen-bolumenak eragozpenak sortzen badizkiete horietatik hurbil dauden pertsonen.
- h) Hondarra ateratzea.
- i) Hondartza osoan salmenta ibiltarian aritzea, edozein motatakoa izanik ere, Udalak eta Kosta Demarkazioak emandako baimen egokia eduki ezean.
- j) Hondartzako erabiltzaileen aurka, langileen aurka eta hondartza-zerbitzuaren materialaren aurka edo Udalak baimendutako emakidadunen aurka indarkeriazko ekintzak edo ekintza probokatzailerak burutzea.

Udalak, etengabe hobetzearen alde, eta eragin diezaiokeen lege-araudia betez, eskubidea izango du hondartzako zerbitzuen esleipena duen edozein pertsonari eta surf-eskoletakoei egoki jotzen duen edozein informazio eta/edo dokumentazio eskatzeko haiek eskainitako zerbitzuarekin loturik, Ingurumenarekin loturik eta/edo ezarritako Kudeaketa Sistemarekin loturik.

## **13. Artikulua.- Udaltzainek hondartzan izango dituzten eginkizunak.**

Udal agintaritzak edo udaltzainek eta, halaber, udan zerbitzua indartzeko kontratatutako langileek ahoz eta/edo idatziz ohartarazpenak egin ahal izango dizkiete Ordenantza honetan jasotako edozein xedapen urratzen dutenei, debekatutako jarduera hori egiteari utz diezaioten bet-betan edo beharrezkoa duten obligazioa bete dezaten, eta horrez gain, dagokion zehapen-



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

espedientea abiarazi ahal izango dute egoki denean edo, hala egokituz gero, dagokion salaketa aurkeztu ahal izango dute Administrazio eskudunaren aurrean.

Salbamenduko edo sorospeneko langileek lagundu egingo diete Ordenantza honetan ezarritakoa jendeari ezagutarazten, eta bereziki, arau-urratzeak jakinaraziko dituzte.

#### **14. Artikulua.- Zigor-erregimena.**

Udaltzainen eta hondartza-zerbitzuko langileen ardura izango da ordenantza honetan jasotako xedapenak bere garaian egoki eta zorrotz betetzen direla zaintzea.

Araudi hau urratzen duten pertsonen isunak ezarriko dizkiete alkateak edo zinegotzi delegatuek, indarrean dagoen edo etorkizunean egon daitekeen legedian adierazitako mugekin.

1. Udalaren zigor-ahalmenari begira, ondorengo lege-arauak hartuko dira kontuan: azaroaren 26ko 30/92 Legea, urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, uztailaren 28ko Kosten 22/1988 legean xedatutakoa, itsasbazterren babes eta erabilera iraunkorrari buruzko maiatzaren 29ko 2/2013 Legeak gerora aldatua, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuak onetsitako horren araudia eta Ordenantza honetan aurreikusitakoa.

2. Udalaren barruan, zehapen-espedienteak abiarazi eta izapidetu daitezela agintzeko eta egoki diren zigorrak ezartzeko eskumena Alkatearena da.

3. Ordenantza honetako aginduak urratzeagatik dauden administrazio arloko arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

a) Arau-hauste arina: Arau-hauste arintzat joko dira ondorengoak:

a.1) Bainuak:

- 4. artikuluan adierazitako bainuetarako seinaleak ez errespetatzea.

a.2) Lehorreko kirolak:

- Itsasgoran hondartzaren luze-zabal osoan kirol-jolasak egiten aritzea.


- Edozein kirol egitean sokak, ainguratzeak edo edozein eratako amarratze edo trakzio mekanikoa nahiz animalia bidezkoa erabiltzea.

a.3) Uretako kirolak:

- Ikastaroan baimendutakoak baino pertsona gehiagok parte hartzea.

a.4) Eguzki-oihalak eta itzalkinak:

- Hondartzan kanpin-dendak edo antzekoak jartzea.



## DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

- Udal zerbitzuek eta/edo sorospen-zerbitzuek horrela eskatzen dietenean itzalkinak jasotzeko edo ixteko aginduari jaramonik ez egitea.

### a.5) Garbitasuna:

- Hondakin solidoak, obra-hondakinak, edota ontziak, zaborrak eta zakarrak horretarako xedatutako gaikako bilketarako ontzietatik edo paperontzietatik kanpora botatzea edo uztea.
- Hondartzan eta Itsas Pasealekuaren ertzean dauden dutxa eta oin-garbitegi publikoetan xaboiak, garbigarriak eta bainurako gelak erabiltzea.
- Hondartzako eta Itsas Pasealekuko eremu publikoetan txiza edo kaka egitea.
- Edozein eratako animalia hondartzan sartzea, baimendutako ekitaldi baterako izan ezean.

### a.6) Biodibertsitatea.

- Debekatuta dago duna-eremuan mugatutako lekuetan hondar-pilaketak errazten dituzten landareak erauztea edo hondatzea, kosta-zerbitzuak eta Foru Aldundiko dagokion departamentuak justifikatutako eta onetsitako arrazoiren bat egon ezean.

### a.7) Ingurumena eta beste batzuk:

- Hondartzako pasabideetan eta sarbideetan jendearen joan-etorriak oztopatzen dituzten aulkiak, eserlekuak edo bestelako objektuak jartzea, eta halaber, igartzeko leku horien barruan etzatea edo geldirik geratzea.
- Hondartzan janaria prestatzea, baldin eta horiek prestatzeko sua erabili behar bada, horretarako dauden su mota desberdinetan (su txikiak, kanpin-gasak, eta abar).
- Hondartzan otordua egiteko mahaiak edo horien ordezkotako tramankuluak muntatzea.
- Sua egitea eta parrilak, barbakoak edo antzekoak erabiltzea.
- Hondartza gaua igartzeko erabiltzea, edota bilerak, festak edo ordena nahasi dezakeen edozein ekintza antolatzea.
- Megafonoak, transistoreak, disko-jogailuak edo antzekoak edo beste soinu-igorgailu batzuk erabiltzea, hondartzako zerbitzuek erabiltzen dituztenak izan ezik, baldin eta horien entzumen-bolumenak eragozpenak sortzen badizkiete horietatik hurbil dauden pertsonen.
- Hondarra ateratzea, horren kantitateagatik arau-urratze larritzat edo oso larritzat jo ezean.
- Hondarrari eusten dioten landareak nahita erauztea edo horrelakoei kalte egitea.
- Ordenantza honetako aurreikuspenak artikulua honetan jaso ez diren arrazoiengatik urratzea, baldin eta horiek pertsonen, ondasunen edo ingurumenari eragiten dizkieten eragozpenak txikiak edo garrantzi gutxiak badira.


### b) Arau-urratze larria: Arau-hauste larritzat joko dira ondorengoak:

#### b.1) Lehorreko kirolak:

- Jaurtiketa-jarduerak egitea: barra, xabalina eta abar.

#### b.2) Ur-kirolak:

- Surfa, bodyboarda edo piraguismoa, mugatutako eremuetatik kanpo egitea.
- Balizatutako eremuetan edozein eratako ontzi edo bitarteko flotatzaile erabiliz nabigatzea, bela-ontzia izan nahiz motorduna izan, zaintza-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzuekin loturikoak izan ezean.



## DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

- Trakzio mekanikoa edo eolikoa erabiliz edozein ur-kiroletan aritzea, edota itsasontziak beren bertsio desberdinetan (motoak, eskia, belaontziak, arraun-ontziak eta abar) erabiltzea, marea-lerrotik 200 metrotara baino hurbilago.
- Lehorreko aisialdi-arrantzan eta urpeko arrantzan aritzea, eskatutakoa baino distantzia gutxiagora.
- Kirol-eskolak.
  - Dagokion baimena erdietsi ondoren, baimena erdiesteko eskatutako betebeharren bat ez betetzea.
  - Arau-urratze arinak behin baino gehiagotan egitea edo errepikatzea.
  - Hondartzako salbamenduko arduradunen, Kosta Administrazioen, Udaltzainen edo udal zerbitzuetaoen ohartarazpenei behin eta berriz jaramonik ez egitea.

### b.3) Aire-lehor-itsasoko kirolak:

- Udako denboraldian, haizeak bultzatu edo eraman ahal izateko sokak eta ainguratzeak edo amarratzeak beharrezkoak dituzten kirolak edo jarduerak egitea.
- Motordun parapentean hegan egitea.

### b.4) Ingurumena:

- Araztu gabeko hondakin-urak edo beste edozein eratako substantziak, hondakinak edo gaiak botatzea, ingurumenari buruzko indarreko araudian horrela sailkatuta daudenean.
- Mahaitxoaren garbiketaren sortutako hondakinak hondarretara botatzea.

### b.5) Datuak isiltzea eta eskatzen zaizkienak emateari uko egitea.

b.6) Ordenantza honetako aurreikuspenak artikuluan honetan jaso ez diren arazoengatik urratzea, baldin eta pertsonen, ondasunen edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten badizkiete, edo urtebeteko epearen barruan bi arau-urratze arin baino gehiago egitea.

b.7) Arau-urratze arinak behin baino gehiagotan egitea edo errepikatzea. Arau-urratzailea arau-urratze arin bat egin izanagatik bi aldiz baino gehiagotan zigortua izan denean errepikatzea gertatu dela joko da.


### c) Arau-urratze oso larria:

c.1) Hondakin-urak edo beste edozein eratako substantziak, hondakinak edo gaiak botatzea, ingurumenari buruzko indarreko araudian horrela sailkatuta daudenean.

c.2) Ordenantza honetako aurreikuspenak artikuluan honetan jaso ez diren arazoengatik urratzea, baldin eta pertsonen, ondasunen edo ingurumenari arrisku edo kalte oso larriak eragiten badizkiete, edo urtebeteko epearen barruan bi arau-urratze larri baino gehiago egitea.

c.3) Arau-urratze larriak behin baino gehiagotan egitea edo errepikatzea. Arau-urratzailea arau-urratze larri bat egin izanagatik bi aldiz baino gehiagotan zigortua izan denean errepikatzea gertatu dela joko da.





DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

c.4.) Kirol-eskolak

- Surf- eta bodyboard-eskolen edo antzeko beste batzuen denboraldiko zerbitzuaren ustiapenerako arauzko baimena ez edukitzea.
- Zerbitzua zuzenean ez eskaintzea, beste norbaiti laga edo eskualdatu egin zaiolako.
- Erantzukizun zibilaren aseguru-primen ordainketan egunean ez egotea.
- Kontratuari atxikitako langileen gizarte-segurantzaren ordainketetan egunean ez egotea.
- Aurkeztutako dokumentazioa faltsua izatea.
- Laneko arriskuen prebentzioarekin eta laneko segurtasun nahiz osasunarekin loturiko obligazioak ez betetzea.
- Dagokion baimena erdietsi ondoren, baimena erdiesteko eskatutako bi betebeharrak edo gehiago ez betetzea. Kasu honetan, jakinarazi ondoren eta hori konpontzeko epea igaro ondoren, hasitako urteari dagokion baimena kenduko zaio eta, zigor modura, ez du hurrengo urteko baimena erdiesteko aukerarik izango.

4. Aurreko puntuan xedatutakoa hala izanik ere, eta arau-urratze horiek arintzat, larrizat eta oso larrizat izendatzeari edo sailkatzeari begira, eragin ahal izan dituzten kalteak ekonomikoki zenbagarriak direnean, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- a) Kalteen arriskua (kalte potentzialak) edo benetako kalteak 60.000 eurotik gorako zenbatekoa dutenean: arau-urratze hori oso larrizat sailkatuko da.
- b) Kalteen arriskua (kalte potentzialak) edo benetako kalteak 30.000 eurotik 60.000 eurora bitarteko zenbatekoa dutenean: arau-urratze hori larrizat sailkatuko da.
- c) Kalteen arriskua (kalte potentzialak) edo benetako kalteak 30.000 euroko zenbatekoa edo hortik beherakoa dutenean: arau-urratze hori arintzat sailkatuko da.


5. Era berean, eta ordenantza honen 4. puntuan xedatutakoa gorabehera, sortutako arrisku-egoera edo eragindako kaltea ekonomikoki neurtzerik ez dagoenean, Udalak, zehapen-espeditentaren bidez, egoki iruditzen zaizkion txostenak eskatu ahal izango ditu, egoera horrek ondorio oso larriak, larriak edo arinak ekarri dituen erabakitze modua izan dezan.

6. Ordenantza honetako arauen aurka egindako arau-urratzeak, hurrengo apartatuan xedatutakoa gorabehera, eta lehentasunez aplikatu beharko den sektoreko legerian horri buruzko aurreikuspen bereziren bat egon ezean, honela zigortuko dira:

- a) Arau-urratze arinak: ohartarazpena eta 300 euro arteko isuna.
- b) Arau-urratze larriak: 301 eta 6.000 euro bitarteko isuna.
- c) Arau-urratze oso larriak: 6.001 eta 12.000 euro arteko isuna, nahiz eta beste erakunde batzuek zenbateko handiagoko isunak ezartzeko eskumena izango duten, kasu horretan aplikagarria den araudi bereziarekin bat etorritik.

Arrantzarekin loturiko arau-urratzeak une bakoitzean arrantza alorrean indarrean dagoen araudian aurreikusitakoak izango dira eta bertan aurreikusitako erregimenaren arabera zigortuko dira.

Animalien alorreko arau-urratzeak une bakoitzean animalien babesarekin eta potentzialki



DEBAko UDALA

EXP 2018SCCO0002

arriskutsuak diren animaliekin loturik indarrean dagoen araudian eta Deba-Zumaian Animaliak Eduki eta Babesteko udal ordenantzaren aurreikusitakoak izango dira eta bertan aurreikusitako erregimenaren arabera zigortuko dira.

Arau-urratzeak Alkateak edo Udaleko Zinegotzi Delegatuak zigortuko ditu.

7. Administrazio mailako arau-urratzea gertatu denean arau-urratzailearen erruduntasuna eta izaera aringarria edo larrigarria izan dezaketenean gainerako inguruabarrak kontuan izanik erabakiko eta ezarriko dira isunak, eta bereziki, ondorengoak hartuko dira kontuan:

- a) Horien izaera eta partikularrei edo zerbitzu publikoei eragindako kalteak eta arau-urratze horrek dituen gizarte-ondorioak.
- b) Horretarako borondatea izatea eta behin baino gehiagotan errepikatzea.

8. Ordenantzaren tipifikatuta dauden ekintzen edo ez-egiteen bidez doluz, erruz edo arduragabekeriak araua urratu duten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira erantzuleak.

#### **14. Artikulua.- Preskripzioa.**

1. Arau-urratzeen eta zehapenen preskripzio-epeak ondorengo hauek izango dira:

a) Arau-urratzeak:

- Oso larriak: hiru urtekoa.
- Larriak: bi urtekoa.
- Arinak: urtebetekoa.

b) Zehapenak:

- Arau-urratze oso larriak: hiru urtekoa.
- Arau-urratze larriak: bi urtekoa.
- Arau-urratze arinak: urtebetekoa.


2. Arau-urratzeen preskripzio-epea arau-urratze hori gauzatu den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen. Arau-urratze hori jarraian gauzatu den kasuetan, arau-urratzetzat hartzen den azken ekintza burutu zen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen epe hori, edo legearen aurkako egoera amaitu zenetik.

3. Zehapenen preskripzio-epea, berriz, zehapena ezarri duen ebazpenak administrazio arloan irimotasuna erdiesten duen egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Deban, 2018ko martxoaren 21ean

#### **Xedapen iragankor gehigarria:**

Surf, bodyboard eta piraguismoko ikastaroak eskaini ahal izateko baimena, 2018ko urte honetan, ordenantzaren ezarritako epetik kanpo esleituko zaie eskolei.



**DEBAko UDALA**

EXP 2018SCCO0002

Ordenantza behin betiko argitaratu ondoren, 10 egun naturaleko epea zabalduko da, nahi duten eskolek dagokion eskabidea egin ahal izan dezaten.

Maiatzaren 31 baino lehen onesten baldin bada, gutxienerako betebeharrei buruz eta egon litezkeen baremazio-kasuei buruz ordenantzan xedatutakoa beteko da, eta Udalak erantzun bat eman beharko du 20 eguneko epearen barruan.

Behin betiko onespena ekainaren 1a baino lehen gertatzen bada (data hori ere barne), denboraldiko zerbitzuak ustiatzarren Gipuzkoako probintziako Zerbitzuak Debako Udalarri emandako epea amaitu baino lehen Udalean surf-ikastaroak eskaintzeko baimena eskatu duten eskolek 2018. urte honetarako udal baimena erdietsiko dute salbuespen gisa, betiere ordenantzan eskatutako gutxienerako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.